

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Harri pintatzaileak. Goi paleolitiko artea

Martínez de Antoñana & Mosquera

SAURE

32 orrialde / 15 euro

Artearen historia gai duen komikia

Martínez de Antoñana eta Mosqueraren artean osatutako komiki honek bi protagonista ditu: pinturari buruz guztia jakin nahi duen ikasle gaztetxoa eta gaien aditua den Messina maisua. Animaliak marraztea asko kostatzen zaio mutikoari, eta beste zer edo zer pintatu nahi luke, baina maisuak esaten dio animalien anatomia marrazten jakiteak berebiziko garrantzia duela pintore ona izateko. Horixe bera egin dutela denek artea hasi zenetik. Noiz hasi zen artea? Aspaldi, duela 35.000 urte inguru, Harri Aroan. Hitz horiek entzun eta mutikoa aspertzen hasia bat direla ikusita, gaztetxoa

denboran zehar Historiaurrera eramateko modua asmatu du Messina irakasle azkarrak. Eta ikasleak sekula ahaztuko ez duen bidaia egingo dute biek. **I**

Euskal Herriko errepideen mapa

Sua argitaletxeak plazaratu berri du gaztelaniaz Euskal Herriko bideen gida automobil gidarientzat. Zazpi herrialdeetako hiriburuetara doazen errepideak zehazten ditu, baina horiez gain, xarma berezia duten ibilaldiek ere osatzen dute atlas turistikoa hau, hamaika baitira Euskal Herriko zoko ederrenak ezagutzeko errepidez egin daitezkeen ibilaldiak. Bisitariarentzat interesgarriak izan daitezkeen 500 leku baino gehiago azpimarratzen ditu gidak, besteak beste eraikin erlijiosoak, oroitarriak, aztarna historikoak eta museoak. Bestalde, probintzia bakoitzeko hiriburuaren planoak ere agertzen dira, kalez kale zehaztuak. Eta aurkibideak ere baditu gidak, ezagutu nahi ditugun mendiak, ibiaiak eta kaleak ahalik eta azkarraren bilatu ahal izateko. **I**



Atlas turístico. Euskal Herria. Batzuen artean

SUA

168 orrialde

16 euro



Iker-20

Amelia Hernández Mata

EUSKALZAINDIA

452 orrialde

18 euro

Piarres Lafitteren ekintzabideak jaso eta aztertzen dituen tesia

Amelia Hernández Matak egindako tesia jaso du Euskaltzaindiak argitaratzen duen Iker aldizkariak bere 20. zenbakiak. Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Díaz Noci EHUko irakasleek zuzendu dute tesia eta honako titulua du: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. XIX. mendeko azken urteetan eta XX.aren hasieran Iparraldeak bizi zuen giro politikoari gainbegiratu egin ondoren ekiten dio Hernández Matak Lafitte intelektualaren garaiari, 1920, 1930 eta 1940. hamarkadetan gertaturikoa aztertuz. Urte horietan urrundu zen Lafitte katolizismoaren ikuspegi totalitariotik. Garai hark Lafitte kristau eta antiliberalaren berri ematen digu, baina baita demokrasiaren bidetik jardun zuenarena ere. **I**

Jakin-en 2008rako berrikuntzak

Urteari hasiera eman dion *Jakin* aldizkariaren zenbakiak 2006an euskal liburugintzak eskainitako uztaren analisisa eta balorazioa dakar, Joan Mari Torrealdaireren eskutik. Gainera, Jurgi Kintanak Resurrección María de Azkue lehen euskaldun intelektual gisa agertzen duen lana plazaratu du. Aldizkariako *Egunen Gurpilean* sailak aurtan izango dituen berrikuntzak ere aurkeztu ditu 164. *Jakinek*. Hiru atal berri ireki ditu bihilabetekariak: Arte berreskuratu du, Xabier Gantzarainen eskutik; Teknizientziari heldu dio, Iñaki Irazabalbeitiaren bitartez, eta aldizkariarentzat guztiz berria den sailari ireki dizkio ateak: Aitor Zuberogoiak aurrera eramango duen *Glokalia*. Idazten dutenen artean ere bada berrikuntzarik: Uxue Alberdi ariko da literatura atalean eta Joxe Aranzabal *Telepolis*-en. **I**



Jakin

Batzuen artean

JAKIN

110 orrialde

10,50 euro



Sagarra
David Urgull
EDAF
246 orrialde
13,50 euro

Gatazka beraren hamaika aurpegi

Andres Sorelek zuzentzen duen ACE idazleen elkargoak sortutako argialetxea da EDAF. Etxe horren eskutik plazaratu du *Sagarra* nobela David Urgull idazle donostiarrak. Narrazioan hamaika pertsonariari ematen die hitza, 1936ko gerra ondoren sortutako egoera politikoaren nondik norakoak agertuz: Guardia Zibilean balapean hildako mugalariei, Parisko erbesteratuen *barruan* gertatzen denetik nahiko aldendurik bizi diren Alderdiko buruzagiei, egoera horren aurrean borroka armatuari ekiten dioten Alderdiko gazteei, jarraian gerturatuko zaizkien nerabe sutsuei, haien amei, Meliton Manzanan ordezka dezakeen Cerezo torturatzaileari, ekintzaileen tiroa espero duen politikariari... **I**

Neskato baten etxean bizi den fantasmatoaren istorioa

Xirripin, Iñaki Zubeldiak irakurle gazteenentzat idatzi duen istorioaren kontalaria, Begoña neskatoaren etxean bizi den fantasmato txiki eta bihurria da. Haur baten hatz txikiko azkazalaren tamaina ere ez du. Bi urte daramatza Begoñaren etxean bizitzen eta neska jatorra iruditzen zaio, baina azken boladan haserre antzean sumatzen du berarekin. Zergatik? Neskatoak lo hartu nahi duenean, Xirripinek kili-mak egiten dizkiolako. Orduan Begoñak azkurea sentitzen du, ezin du lorik egin eta sumindu egiten da. **I**

Xirripin
Iñaki Zubeldia
IBAIZABAL
24 orrialde / 6,95 euro



JOXANTONIO ORMAZABAL

«Bizitzari eta neure buruari begiratu diot poemotan»

Norentzat dira zure azken poemok?

Urte pare bateko lana dago liburuan, eta oraingo honetan ez diot gehiegi begiratu norentzat ari nintzen idazten. Ipuinak idatzi izan ditudanean, gehienak, ia denak behintzat, haurrentzat ziren eta idazterakoan haurrak izan ditut buruan: halako adinekoari gustatuko ote zaio, ulertuko ote du eta abar. Honetan ez, honetan etorri zaidana idatzi dut. Konturatu naiz, bai, poema batzuk helduentzat zirela –Juan Kruz Igerabidek asko lagundu dit horretan, aukeraketa egiteko garaian aholkulari bezala; eta hark ere esan zidan, poema pare batengatik: “Hau helduentzat bai, baina haurrentzat...” – eta bat edo bi kendu egin ditut, baina gehienak hor daude, eta nik uste dut hamabi urtekoentzat –jada ez dira hain haurrak ere– egokiak izan daitezkeela.

Zein izan da buruan zenuen gaia?

Bizitzari eta neure buruari begiratu diot gehienbat. Eta hiru zutabe ikusi ditut: ikusten duzuna, mundua; barruan sentitzen duzuna; eta irakurtzen duzuna. Aspaldian irakurtzen dudanak –berdin da poesia baldin bada, prosa edo egunkari bateko zutabea– hausnarrarazi egiten dit eta poematarako haziak ematen dizkit.

Alde grafikoari ere garrantzia eman diozu, ez da hala?

Bai. Elena Odriozolak ilustratu dit liburua, eta nik uste dut marrazkiak oso politak eta esanguratsuak direla. Zuhaitzak daude, eta zuhaitz horietan nik bizia ikusten dut. Konturatu naiz zuhaitz horien adarrak luzatzen-luzatzen-luzatzen doazela hil egiten diren arte; eta orduan beste zuhaitz bat hasten dela bizitzen.




ARGAZKI PRESS

Jaiotzetik heriotzara doan denborako poemak

Joxantonio Ormazabalek eskarmen-tu handia du haurrentzako idazlanak sortzen.

Ilunorduak eta argilaurdenak poema bilduma, ordea, hamabi urtetik aurrerako irakurleei zuzendu die. Olerkien bidez osatutako etxeak tristura eta itxaropena eskaintzen dizkie barrura sartzea ausartzen den edonori. Izan ere, han baitaude, gelaz gela, edo atalez atal nahi bada, bizitzaren ezaugarri nagusiak, aurkezpen moduko olerki txiki banarekin lagundurik. Munduaren igarkizuna bezala –*Ur eta lur/ gazi eta gozo/ gose eta ase/ jaiotz eta hil/ urrezko/ lurrezko/ bizilekua*–, heriotzarena –*Etortzen direnak/ joan bai/ joaten direnak/ etorri ez*–; edota maitasunaren igarkizuna bezala –*Eguzki disdiratsua/ hodeirik ez denean, / edo ezkutuko eguzki/ argi-emailea/ egun hodeitsuetan*–, umorearen igarkizuna –*Arimako egu-*



Ilunorduak eta argilaurdenak
Joxantonio Ormazabal
ELKAR
96 orrialde
8,95 euro

raldia. / Izan daiteke iraukorra, / izan daiteke aldakorra–, tristurarena –*Laino itxia/ poz mehea/ eta ezin aurkitu/ ilusioaren bidea*– eta ilusioarena –*Goizero-goizero/ bideari ekitea/ eta ez etsitzea. / Bizipoza du sinonimo*–. Hau da, gizaki baten jaiotzetik heriotzara doan denborako sentimenduak: *Ordu gozoak/ ordu garratzak/ denetik du bizitzak/ Baina gaur tori loreak/ eta utzi arantzak.* ■

egileari galdezka